


Ezpalak

Jon Torner

Musika protagonista Bilboko Zentsuraren Aurkako Jaialdian



GILBERTO GIL Brasilgo Kultura ministro ohiak azaroaren 26an Euskalduna Jauregian eskainiko duen kontzertuak irekiko du Zentsuraren Aurkako Jaialdia. Hurrengo egunean, Aziza Brahim Tindufeko kanpamenduetan jaiotako musikari sahararra arituko da Kafe Antzokian, Oreka TX taldeko txalapartariekin batera. Han eskainiko du kontzertua Rachid Taha aljeriarak ere, hilaren 28an. Lehen eguneko sarrerak 35 euro balio du, bigarrenekoak 15/18 euro eta hirugarrenekoak 25/30 euro. Kontzertuez gain, erakusketak eta mahai-inguruak ere izango dira azaroaren bukaerara bitartean. Hizlarien artean Fahed Halabi margolari siriarra dago.

Titirijai-ren 27. edizioa

BERROGEI konpainia inguruk parte hartuko dute Titirijai Tolosako 27. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdian, hilaren 28tik abenduaren 6ra bitartean. Euskal Herriko taldeez gain, Korea, Israel, Italia, Mexiko, Portugal, Tailandia, Quebec eta Espainiako Estatuko konpainiak arituko dira Tolosan. Aurten edizioan Quebec izango da herrialde gonbidatua. Jaialdiak irauten duen bitartean, hango txotxongilo taldeen inguruko erakusketa izango da ikusgai Aranburu jauregian. Bestalde, hilaren 27an TOPic txotxongilo zentroa inauguratuko dute. Euskal Herria Plazan kokatua, 3.600 metro koadro ditu, zenbait aretotan banatuta: museo iraunkorra, mediateka, entsegutarako gela, 250 ikuslerentzako espazioa...

Nafarroako Antzerki Eskolako ikasleek eta antzerki munduko langileek kezka azaldu dute zentroaren etorkizuna dela-eta. Nafarroako Gobernuak 2010erako prestatu dituen aurrekontuetan, NAEri diru-laguntza erdira jaitea aurreikusi du eta hori hala bada, egoera jasanezina izango dela eta zentroak bizirik jarraitzea zaila izango dela esan dute.

BataKlon ahari gaztearen abenturei segida ematen dien liburua plazaratu du Alberdaniak, *BataKlon Ilargialden*. Sylvet Carok idatzi du liburua eta ilustrazioak Marko Armspachek egin ditu. Euskarazko itzulpena berriz Kattalin Totorikarena da. Txalapartak, bestalde, *Marizipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi* plazaratu du, *Marizipriztin* ipuin klasikoaren bertsioa. Neskaila aske agertzen da, bere erabakien jabe; ez du printze urdinari lotzeko eta takoieta ibiltzeko asmorik. Nunila Lopez eta Myriam Camerosen liburua Itziar de Blasek eta Mikel Garmendiak euskaratu dute.

● Eñaut Elorrieta Ken Zazpi taldeko abeslariak *Berrian*: «Musikaren industria krisian dago, baina musika bera ez. Krisiak dauzkagun gabeziak azaleratu ditu, baina zorigaitz hau aukera bihurtu behar dugu, eta musikariok inplikatu eta gidari izan behar dugu. Lehen lerroan egon behar dugu, etorkizuna bidezkoagoa izan dadin. Erabakiguneetan egon behar dugu, eta ahots nagusia izan. Euskal musikagintzarekin kezkatuta nago; taldeen artean ez dago komunikaziorik, individualismo arriskutsu batean murgilduta gaude. Hausnarketa egin beharko genuke, sortzailea bera erabakiguneetan egotea nahi badugu».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php



Jaso euskal kultura egunero 10 albistetan

Harpidetza doan e-postaz

Dagoeneko 2.500 harpidedun

hari@

euskal kulturaren buletinak 10 urte

Harpidetu zaituz:

www.argia.com/harpidetza_haria.php

argia.com